

# AIARALDEA *hemen*



ERREPORTAJEA:  
**Guardian Llodio: sinboloa kristal zati puskatu bilakatzen dutenean** 4-5 or.

HEZKUNTZA GEHIGARRIA:  
**Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko aurrematrikulazioa**



# Aiaraldeak badu talentua

AIARA GAZTE MUSIC FEST



## AIARALDEA 2-3

**Komunikabidea babesteko hitzarmena sinatu dute udalek**

Aiaraldeko udal guztiek berri eta handitu dute Komunikabidearen laguntza, Amurrioko Udalak salbu

## AMURRIO 8

**Etxebizitzarena "arazo kolektiboa" dela aldarrikatu dute**

Urtarrilean jazotako etxegabetzea salatu eta herritarren aktibazioa eskatu SOS Aiara plataformak

## OKONDO 9

**Eguraldi makurrari festa giroarekin egin diote aurre San Sebastian jaian**

Okondoko Otaola auzoko San Sebastian festan urteroko ohiturari eutsi diote, kazkabarrari aurre eginez

## KULTURA 12-13

**"Haurrak euskal dantzetara erakartzeko balio du Txikitok"**

Euskal Dantzak irakasteko Txikito panpin digitalaren atzean dago Aitor Alava Zurimendi aiarrarra

## KIROLA 20

**Garaipen historikoa lortu dute Laudioko Hockey taldeek Granja Kiroldegian**

Areto Hockeyko Euskadi Txapelketan lehen eta bigarren postua erdietsi dute Ganbegi HT eta Hockey Laudio taldeek



# Eskualdeko udal guztiek handituko dute Aiaraldea Komunikabidea indartzeko laguntza, Amurriokoak salbu

Hitzarmena berritu eta dirulaguntzaren zenbatekoa eguneratzea adostu dute Laudio, Aiara, Orozko, Arrankudiaga-Zollo, Okondo, Urduña, Arakaldo eta Artziniegako Udalek Aiaraldea Komunikabidearekin.

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Aiaraldea Komunikabidearen duela hamahiru urte sinatutako euskara sustatzeko lankidetzaz hitzarmena eguneratzea adostu dute Laudio, Aiara, Orozko, Arrankudiaga-Zollo, Okondo, Urduña, Arakaldo eta Artziniegako udalek.

Modu horretan, komunikabideari ematen dioten babes ekonomikoa indartzeko dute aipatutako zortzi tokiko erakundeek aurrean, komunikabidearen bidez dituen erronkei hobeto heldu ahal izateko.

Iragan udazkenean egin zuen Aiaraldea Komunikabideak biler

ra erronda eskualdeko udal talde politiko guztiekin, hitzarmena eguneratzeko proposamena helarazi eta talde guztien oniritzia jasotzeko. Horrela, komunikabidearen jardunaren berri lehen eskutik jaso ahal izan dute udaletan ordezkariak duten talde politiko guztiek, eta ekarpenak egin ahal izan dituzte horri begira.

Okondoko Udalak, adibidez, udalerrriak komunikabidearen duen presentzia handitzeko beharra jarri zuen mahaigainean, eta hori bermatzeko neurriak adostu ditu hedabideko lantaldearekin.

2012an sinatu zuten eskualdeko udal guztiek euskarazko

komunikabideak sustatzeko dirulaguntza, Saraube mahaian. Garaiko alkate guztiek ez ezik, eskualdean ordezkariak zuten talde politiko guztietako ordezkariak ere egin zuten bat ekimearekin.

Une horretan adostu zen Aiaraldea Komunikabidea finantzatzeko urteroko dirulaguntza. Ordutik hona eskualdeko udal bakoitzak 0,60 euro bideratu ditu dirulaguntzara biztanleko. 2017an, aldiz, hitzarmena berritu egin zen, dirulaguntzen zenbatekoa gaurkotu eta 0,70 euro biztanleko parametrora igaroz.

Hori da azken zazpi urteetan indarrean egon den zenbatekoa. Aurten, aldiz, dirulaguntzaren

**Komunikabideak ortzimuga berri bati ekin nahi dio ikus-entzunezkoen esparruan, eta datozen hilabeteetan ikusi ahalgo dira lehen emaitzak**

zenbatekoa 1,00 euro biztanleko izatera igaroko da aipatutako zortzi udaletan, Aiaraldea Komunikabidearekin adostuta.

**Zergatik eguneraketa?**

Gauza asko aldatu dira azken hamahiru urteetan. 2012an hitzarmena sortu eta lehenbiziko aldiz sinatu zenean, webgune soil batera mugatzen zen Aiaraldea Komunikabidearen jarduna. Handik urtebetera argitaratu zen Aiaraldea Hemen hamabostekariaren lehen alea, orduz geroztik hamabostean behin banatzen da doan, eskualdeko ikastetxe, saltoki, taberna, kale eta bestelako topagunetan. Gero etorri ziren Aiaraldea Jaietan

udako aldizkaria edota Mugarriak urtekaria, sare sozialetako presentziaren eta ikus-entzunezko sorkuntzen ugaritzea... eta orain, ortzimuga berri beti ekin nahi dio Komunikabideak: Aiaraldea Telebista.

Hainbat urrats eman dira dagoeneko norabide horretan. 2023ko amaieran ekin zion Komunikabideak asteroko Poliedroa bideo-podcasts ekoizteari, eta aurtan jauzi kualitatibo nabarmena egin nahi du esparru horretan.

Horretarako, grabaketa plaitoa atondu du Laudion kokatutako Faktoria espazioan, kámara errobotizatuz hornitutako ikus-entzunezko errealizazio azpiegiturarekin. Bertan ekingo dio ikus-entzunezko programazio jarraitua osatzeari, maiztasun finkoko zenbait saio ekoizteragaroz. Datozen hilabeteetan ikusi ahal izango dira egitasmo horren lehen emaitzak. Horrez gain, bestelako erronkak ere ditu esku artean Komunikabideak. Alde batetik, papereko ekoizpenaren berregituraketa egin nahi du, formatu fisikoaren alde eginiko apustuan berretsita, baina hamabostekaria eta beste argitalpenak gaur egungo publikora (publiko gaztera, batez ere) gerturatu eta egungo gizartean ematen ari diren aldaketetara egokituz.

Edizio digitala indartzea ere bada beste erronketako bat, giza baliabideetan eta formazioan inbertituta eta, modu horretan, komunikabidearen eguneroko ekoizpen digitalaren kalitatean jauzia emanez, edukiei zein formatuari dagokionez.

#### Bizitzaren garestitzea

Baina, erronketatik eta proiektu berrietatik harago, badago finantziazioaren igoera are pre-

miazkoagoa bilakatu duen faktore bat: azken urteetan sektore guztietan bizi izan den bizitzaren garestitzea.

Zerbitzu guztien prezioek egin dute gora. Adibide zehatz bat jarzearren: 2018tik hona % 43,16 igo da Aiaraldea Hemen hamabostekariaren inprenta kostua, eta langileetan zein bestelako balibideetan ere geroz eta diru gehiago inbertitu behar da. Beste modu batera esanda: orain arte erdietsitako lorpenak mantentzeko beharrezkoa da proiektuaren finantziazioa handitu eta egonkortzea. Adimen artifizialaren olatua, *fake news*-en aurkako borroka, digitalizazioa, belaunaldi gazteekiko atxikimendua... Erronka handiak dituzte eta izango dituzte komunikabideek datozen urteetan, are gehiago euskara bezalako hizkuntza gutxituan jarduten dutenek, eta Aiaraldea Komunikabideari ere berebizikoa zaio horiei aurre egiteko eza gutza eta balibide egokiak eskuratzea.

#### Salbuespen bakarra

Hitzarmenaren eguneraketarekin lortutako adostasunak badu salbuespen bat: Amurrioko Udala. Duela urtebete ezabatu zuen bertako udal gobernuak euskarazko komunikabideak sustatzeko hitzarmena, Aiaraldea Komunikabideari dirulaguntza kenduz. Erantzuna tamainakoa izan zen: 1.700 eragile eta norbanako baino gehiagok (Amurrioko 500 elkarte eta herritarretik gora tartean) eskatu zioten tokiko erakundeari hartutako erabakian atzera egitea, udaletxearen aurrean eginiko agerraldi jendetsu baten bidez. Baina, gaur gaurkoz, Udalak uko egin dio Aiaraldea Komunikabidearekin biltze hutsari.



## Amurrioko Udalak uko egin dio Aiaraldea Komunikabidearen dirulaguntza 2025eko udal aurrekontuetan sartzeari



1.700 eragile eta norbanako batu ziren uda hasieran euskarazko komunikabideen aldeko manifestura. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Amurrioko 2025eko udal aurrekontuetan ere ez da Aiaraldea Komunikabidearen dirulaguntza egongo. Hala erabaki du udal gobernuak. Ostegun honeko udal osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatu da tokiko erakundearen aurtengo plangintza ekonomikoa eta, iaz bezala, ez du Aiaraldea Komunikabidearekin sinatutako hitzarmena kontuan izango. 2024ko maiatzaren 24an jakinarazi zen Amurrioko Udalak hamabi urtez indarrean egondako dirulaguntza kendu ziola eskualdeko euskarazko komunikabide bakarrari, egun batetik bestera eta aurretik inolako jakinarazpenik eman gabe. Berez, Aiaraldea Komunikabideak apirilean jaso zuen albistea, bide ez-ofizialatik. Hedabideko kideak alkatearekin biltzen saiatu ziren orduan, baina uko egin zion (gaur gaurkoz, bilera horren eta dirulaguntza kentzearen jakinarapen ofizialaren zain jarraitzen du komunikabideak).

#### 1.700 ahotsi entzungor

Egoera zein zen ikusita, pla-

za publikora atera zen gaia, eta atxikimendu kanpaina abiatu zen Amurrioko zein eskualdeko eragile zein norbanakoen artean. Arrakasta nabarmena izan zuen ekimenak: aste bakan bartzuen bueltan 1.700 atxikimendu jaso zituen euskarazko hedabideen aldeko manifestuak, Amurrioko 500 elkarte zein bizilagun baino gehiagorenak tartean. Kanpaina hori ekainaren 21ean amaitu zen, Amurrioko udaletxearen aurrean eginiko agerraldi jendetsuan.

Patri Pinedo eskubaloi jokalaria ohiak eta Manolo Plazak (Amurrioko Olentzero erretiratu berriak) irakurri zuten manifestua, eta hainbat eskaera egin zizkieten Udalari. Alde batetik, Aiaraldea Komunikabidearekin bilera egitea, bi entitateen arteko elkarlana berriz abiatu eta normalizatzeko, dirulaguntza berrezartzeko eta babes ekonomiko horren zenbatekoa eguneratzeko, "eskualdeko gainontzeko udalek egiten duten ekarpenarekin parekatuz". Bestetik, "elkarlana estutzea" eskatu zioten udalerriko zein eskualdeko euskalgintzaren eragileekin, "eragile aktibo" bilakatzeko "euskararen biziberritzearen prozesuan".

#### Proposamen berria

Epe bat ere eman zuten horretarako: hiru hilabete, irailaren 21era arte. Baina igarozen uda, eta Udalak ez zien eskakizun horiei erantzun. Are gehiago, berriro ere uko egin zion gaiaz hitz egiteko bilera bat egite hutsari. Egoera zein zen ikusita, gatazka honetan bitartekari izateko eskera formalazuz zion Aiaraldea Komunikabideak Josune Irabieni.

Irailean izendatu zuten Amurrioko alkate ohiak Eusko Jaurjaritzako Euskara Zuzendaria, eta horregatik pentsatu zen bera zela pertsonarik proposena Amurrioko egungo udal gobernuarekin bitartekari lanak egin eta adostasunak bilatzeko.

Bitartekaritza saiakera horrek, baina, ez zuen fruiturik eman. Komunikabideak gatazka bideratzeko proposamen berria helarazi zion Amurrioko Udalari azaroan, baina kasu horretan ere ez zen inolako erantzunik egon tokiko erakundearen partetik.

Urte berriarekin batera iritsi da Udalaren erantzun bakarra: 2025eko aurrekontuetatik ere euskarazko komunikabideen aldeko dirulaguntza kentzea.

# Guardian Llodio: sinboloa kristal zati puskatu bilakatzen dutenean



Villosatik Guardian taldera egin zuen enpresak 80ko hamarkadan eta XXI. mendean garrantzia galtzen joan da Koch Industries amerikarren eskutik. Bere bilakaera eskualdearen metafora bihurtu daiteke, itxiera ez badute gelditzen.



Testua **Aitor Aspuru Saez**  
Argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Urtarrilaren 21ak albiste ezatsegina utzi zuen Aiaraldean, Guardian Llodioko zuzendari-tzak iragarri baitzion Enpresa Batzordeari lantegia itxiko zutela. Aitzakia da labea egoe-  
ra txarrean dagoela, baina edozein azpiegituran bezala, aldiro inbertsioak egitea ezinbestekoa da biziraupena bermatzeko eta, Koch Industries taldeak konponketa ordaintzeko asmorik ez badu, zalantzarik gabe, bada aurretik fabrika desegitea erabaki zuelako.

2011n Guardian taldeak 40 milioi euroko inbertsioa egin zuen Laudionlabea eraikit, gutxienez, 30 urtez lana bermatzea ziren aurreikuspenak. 2012an, ordea, Koch Industries hasi zen multinazionala erosten eta aldaketak azkar heldu ziren. Guardian Express saldu zioten urte berean Carglass konpainiari eta langile gehienak (30 inguru) kaleratu zituen azken horrek, lanpostuak bikoiztuta zeudela argudiatuta. Horren ostean heldu zen Koch Industriesen apustua Tuterako Gobernuaren diruarekin, besteak beste, eta ehunka lanposturen suntsiketa. 850 beharginetatik, 434 baino ez ziren geratzen 2020an eta Glavistaren salmen-

ta susmagarriak (Parter Capital funts putre suitzarrari) 225 langile gehiagotan murriztu zuen. Gogoratu beharra dago Glavistaren porrot ekonomikoa epaitegian dagoela oraindik. Hor-taz, Guardianen pasa den aste-ko iragarpena azken kolpea izan da oraindik kontratua zuten 171 langileentzat.

#### **Glavista, une erabakigarria**

Eusko Jaurlaritzak zenbait adierazpen egin ditu lantegiaren etorkizunaren alde, baina arazo nagusia da mugimendua berandu datorrela. Izan ere, Glavistak iaz izan zituen aukerak enpresa proiektu berri baten ardatza izateko, baina erakunde publikoek ez zuten Guardian sakatu hori

**Glavistak iaz aukerak izan zituen enpresa proiektu berri baten ardatza izateko, baina erakunde publikoek ez zuten Guardian sakatu hori ahalbidetzeko**

ahalbidetzeko. Finean, erosle berriak makineria zein lanpostuak bere gain hartzeko, fabrika bera ere erosi nahi zuen, baina Guardian taldeak ukatu egin zion aukera hori. Orain, tamalez, proiektua sustatu zuen pertsonak (Javier Garcia Marquez bizkaitarrak) ez du interesik. Aipatu beharra dago Garcia Marquez konbentzitututa zegoela enpresaren bideragarritasunaz eta sektorea primeran ezagutzen zuela, Guardianen ardurak izan baitzuten aurretik.

#### **Basamortua**

1934an sortu zuen Delclaux familiak Vidrieras de Llodio (Villosa) eta 1965ean lantegia handitzeko erosketak egin zituzten.

1932

1985

2012

*Delclaux familiak Vidrieras de Llodio (Villosa) lantegia sortu zuen. 1960ko hamarkadatik aurrera 1.500 langile izatera iritsi ziren*

*Guardian multinazional estatubatuarra Villosa erosi zion Delclaux familiari*

*Koch Industries enpresa-konglomeratuak Guardianen kapitalaren %44,5 erosi zuen. Lau urte geroago guztiz bereganatuko zuen multinazionalaren kapital guztia*

1.500 langile izatera heldu ziren eta Laudioko bizitza bera ere konpainiaren inguruan antolatzen zen; CD Laudio Villosa taldea izan zen hainbat hamarkadaz, ekonomatua zuten erosketak egiteko eta umeen marrazki lehiaketarekin batera, zinema saioak eskaintzen zituzten gabonetan, herriko ume guztiak zeuden gonbidatuta proiektio horietara eta, nolabait, hainbat helduren hezkuntza sentimentalean Villosaren aztarna dago, modu batean edo bestean. 1985an, ordea, Guardian taldeak erosi zion Delclaux familiari negozioa eta 2012tik aurrera multinazionala munduko enpresa erraldoi baten diruari ireki zizkion ateak; Koch Industriesi, hain zuzen. Ezin ahaztu urte berean greba basatia egin behar izan zutela langileek 120 kalera-tze gelditzeko. Geroztik, hainbat buruan egon da jabeek mendekua hartuko zutela.

Izan ere, bai Javier Garcia Marquezekin enpresan aritu diren beste langile batzuek uste dute konpainia errentagarria dela eta ez dela egia zaharkituta geratu dela, besteak beste, eguzki plaketarako kristala ekoizteko robotak estreinatu gabe daudela.

#### Iruditegiaren erorketa

Iruditegi kolektiboan Guardian Villosaren ondorengoa da (Glavistarekin gertatu ez bezala, nahiz eta langile gehiago eduki) eta horregatik shock handiagoa eragin du iritzi publikoan. Izan ere, Aceros de Llodioarekin batera (1992an itxi zutena) eskualdeko industrializazioaren ikurra izan zen. Arazoa da garai horiek igaro direla eta azken hamarkadetan enpresa handi gehiago joan direla pikutara (Lipmesa) basamortu industrial sortuta begien bistan.

Zerrenda ez da laburra; Valvospain ere desagertu zen, baita Vicalde edota Kider. Azken bi horiek euren azpiegituretan jarduera daukate, baina ez lehen zuten langile kopuruarekin, inondik inora. Horri gehitu behar zaio LIDLek Laudioetik Iruña Okara aldatu zuela bere biltegia eta Gometegi ere hartzekodunen lehiaketan egon zela, eta nola ahaztu

Tubacex enpresako greba bortitza eta Tubos Reunidosek kateatu dituen enplegua erregulatze-ko espedienteak.

Vidrala, Delclaux familiak ere sortuta eta beiraren sektorean sartuta, 90 langile gutxiagorekin funtzionatzeko urratsak egingen ari da, atzerrian inbertsioak biderkatu ostean.

## Iruditegi kolektiboan Guardian Villosaren ondorengoa da eta horregatik shock handiagoa eragin du iritzi publikoan

#### Eredu aldaketa

Ironia, kasualitatea edota arrazoa, Donald Trumpek bere bigarren legegaldia hasi zuenean Guardianen itxieraren albistea heldu zitzaion langile ordezkariari. Jakinda Koch Industriesek errepublikarrak finantzatzen dituela eta Donald Trumpek iragarri dituen politikak, baliteke Laudioko erabakiak irudikatzea munduak hartuko duen norabidea; kapital internazionalaren erasoaldi lotsagabe eta gupidagabea, bereziki, langileen eta herrien zapalketarako. Adibide ezin gordinagoa izan da Guardianen erabakia langileen grebaren aurrean; labearren itzaltzea eta suntsipena aurreratzea, inork ez dezan aukerarik erabiltzeko. Aldi berean, Villosa izandako enpresaren hondoratzearen irudiak suposatzen du eskualdeak berak bere industria identitatearen krisialdian sakontzea.



2012

2020

2025

120 langile kaleratzeko mehatxua mahaigaineratu zuen enpresak. Beharginek greba mugagabea egin zuten, zuzendaritzarne nahia atzera botaz

Guardianek Parter Capital funts-putreari saldu zion ordurarte lantegiaren parte zen Autogas-Glavista enpresa. 2022an itxi zuten eta Glavistako 225 langileak kaleratu zituzten

Urtarrilaren 21ean prentsari bidalitako oharrean Laudioko lantegia ixteko erabaki irmoa adierazi zuen Guardianek

# herriz herri

Aiaraldea

## Eskualde osoan dago martxan Berbalagun egitasmoa



Mota askotako jarduerak egiten dituzte Berbalagun zein Gurasoleku programen baitan. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua

**Maider Ramirez Martin**

Etengabe hazten ari da AEK-k aspaldi abiarazitako Berbalagun egitasmoa. Gaur egun, berrehun lagun hogeitaldetan elkartzen dira Aiaran, Amurrión, Okondón, Urduñan eta Laudión eta eskualdeko hainbat txokotara eramaten dute euskara: tabernetara, mendietara, eskolotara, kultura etxeetara, kaleetara... Udalerrri horiei beste hiru batu zaizkie urte berriarekin batera, Orozko, Arrankudiaga eta Artziniega, hain zuzen ere.

Lehenengo aldia da proiektua Aiaraldeko udalerrri guztietan martxan dagoela eta laurogei ekintzatik gora aurreikusitako dituzte aurtengo programazioaren baitan: sukaldaritza tailerrak, orientazio, espeleologia eta mendi txangoak, magia eta pailazo ikuskizunak, eskalada saioak, autodefentsa tailerrak, ipuin kontalariak, zeinu hiz-

kuntza ikastaroak, ludotekak... Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren Gurasoleku programan ere parte hartzen dute berbalagunek.

### Zer eta norentzat?

Mintzapraktika taldeek osatzen dute Berbalagun egitasmoa. Parte-hartzaileak hainbat jarduerara egiteko elkartzen dira, betiere euskaraz hitz egiteko eta hizkuntza praktikatzeko helburuarekin.

Antolatzaileen arabera, "programaren bidez hiztun guztiek gustura eta lasai egiten dute euskaraz, euskaldunon komunitatea indartu eta zabaltzeko" ideiarekin. Beraz, euskaldun berriek, euren ahozko maila hobetzeko edo mantentzeko parada dute talde horietan. Euskaldun oso edo zaharren papera, gainera, guztiz funtsezkoa da egitasmoan; alde batetik, euskaldun berrien euskara hobetzen laguntzen dutelako; eta bestetik,

euskaldun zahar eta berrien arteko harremanak euskaraz ematea ahalbidetzen dutelako.

Mota askotako euskaldunek parte hartzen dutela adierazi dio Aiaraldea Komunikabideari Aaron Garmendia eskualdeko Berbalaguneko dinamizatzaileak: "Euskara modu zuzen eta argian hitz egiten dutenak, kostata ibiltzen direnak, bizkaieraz mintzo direnak, gipuzkeraz, batuan... hitanoa praktikatzeko taldea ere sortu dugu!".

### Parte hartzeko bideak

Doakoa da Berbalagun programako mintzapraktika taldeetan aritzea. Gainera, hilero opari kutxen zozketak egiten dituzte parte-hartzaileentzat, baita deskontuak ere zenbait harpidetzatan. Interesa dutenek 607 673 744 telefonora deitu edota [aiaraldea@ae.eus](mailto:aiaraldea@ae.eus) helbide elektronikora idatzi dezakete informazioa eskatzeko zein izena emateko.

## Jarraipen zabala izan dute hezkuntza publikoko sindikatuek deituriko greba egunek



Zaraobe Institutuan jarritako pankarta. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua

**Aimar Gutierrez Bidarte**

Aiaraldeko ikastetxe publikoetan oihartuz nabaria izan du urtarrilaren 22 eta 23rako LAB, Steilas, ELA eta CCOO sindikatuek dietutako greba egunek.

### Jarraipen zabala

Greba deialdiak jarraipen zabala izan du Aiaraldeko hezkuntza publikoko irakasleen artean. Langileen ia %60k egin dute bat lanuztearekin, ikastetxez ikastetxe jarraipena desberdina izan den arren. Eskualdeko zentro publiko handiek aisea nozitu dute grebaren eragina; Laudio Institutuan %61ekoa izan da jarraipena eta Zaraobe Institutuan %50ekoa. Antzeko kopuruak zenbatu dituzte Amurrioko Mendiko Eskolan (% 60) eta Zabaleko Ikastetxean (% 66). Artziniegako Arteko Gure Ama Herri Ikastetxean eta Orozkoko Eskolan zenbatu du Aiaraldea Komunikabideak jarraipen baxuena; %45 eta %41, hurrenez hurren. Bide beretik, Laudio Latorro Ikastetxean irakasleen %46 batu da mobilizaziora. Kontrara, Urduñako Herri Ikastetxean eta Etxaurren Ikastolan irakasleen %72k eta %87k egin dute bat lanuztearekin. Okondoko Eskolan zerbitzu minimoek funtzionatu dute soilik.

Lehenengo greba egunarekin alderatuta, bigarren lanuzte egunean zertxobait egin zuten beherajarraipenak eskualdean.

### Greba zikloa

Greba deialdiarekin bat eginenez, Bilbon egin zituzten mobilizazio nagusiak urtarrilaren 22 eta 23an. Sare publikoko langileen lan baldintzak hobetzea eta hezkuntza publikoa erdigunean jartzea eskatu zioten Hezkuntza Sailari manifestazioetan elkartu ziren milaka hezitzaileek.

Hamabi eguneko greba zikloari hasiera eman zioten horrela sindikatuek. Iragan aste bezala, otsailaren 26an eta 27an ere egingo dute greba irakasleek, baina ez dira grebara deituta dauden bakarrak. Haurreskoletako langileek urtarrilaren 28an eta 29an eta otsailaren 12an eta 13an egingo dituzte lanuzteak; sukaldariak eta garbitzaileak, aldiz, urtarrilaren 30ean eta 31n eta otsailaren 19an eta 20an.

### Zortzi aldarrikapen

LAB, Steilas, ELA eta CCOO sindikatu deitzaileek zortzi aldarrikapen zehatzetan bildu dituzte greba zikloaren arrazoiak: lan zamak arintzea; gazteberritze plana ezartzea; hezkuntza publikoko langileek erosahalmena berreskuratzea; enplegua egonkortzea eta bermatzea; azken urteetan Hezkuntza Sailak ezarritako murrizketak bertan behera uztea; ordezkoen lan baldintzak hobetzea; lana eta bizitza uztartzeko benetako neurriak ezartzea, zaintzaren ikuspegitik; eta, azkenik, lan-osasun, berdintasun eta euskara planak osatzea.

## Artziniega

### Arteko landako hirugarren etxolako lanak amaitu dituzte



Espazio estali berria herritarren esku egongo da. **Artziniegako Udala**

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Arteko landako hirugarren etxola egokitzeko lanak amaitu dituzte jadanik. 34.999,89 euroko gastua ekarri du esku-hartzeak eta gehiena Arabako Foru Aldundiak ordaindu du, Obra Txikien deialdiaren bitartez. Lan horiekin amaitutzat jotzen

tuzte Arteko zelaiko etxoletan egin beharreko moldaketak. Kasu honetan, zehazki, estalkia eta irisgarritasuna hobetu dituzte eta helburua herritarren esku geratzea da, askaltzeko edota ingurune natural horretaz gozatzeko. Aurreko legegaldian abiatu zuten proiektua eta, guztiz bukatzeko, egurrezko mahaiak jarriko dituzte leku estalian.

### 2025eko Zuhaitzaren hautaketan bigarren geratu da Artziniegako artea

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Artziniegako arteak ez du lortu 2025eko Zuhaitza izatea, Abengibreko (Albacete) pinuari egokitu baitzaio ohore hori. Izan ere, 6.013 lagun babesa eskuratu du Abengibreko zuhaitzak. Dena den, Artziniegako arteak harro egoteko moduko partaidetza izan du, 4.134 boza bildu baititu orotara. Hau da, bigarren sailkatu da eta hurrengoak baino nabarmen ba-

bes handiagoa izan du. Zehazki, Huelvako pinuak 2.348 boto izan ditu, Teruelgo karraskak 745, Cornellanako haritzak 726, Peracenseko karraskak 643, Puentenasako erkamentzak 611, Segoviako soforak 544, Coyako haritzak 445 eta Foz Calandako karraskak 214.

Aipatu beharra dago artziniegarrak kanpainan oso aktiboak izan direla hiribilduko artearen alde eta hori bistakoa da, zuhaitzaren bozkeri herritar errolatuen kopurua bikoiztu baitute.

## Arrankudiaga-Zollo

### Tokiko espezieetako bostehun zuhaitz inguru landatu dituzte



Zaraobe Institutuko ikasleak zuhaitz-landaketan parte hartu zuten. **Sagarrak**

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Iragan urtarrilaren 17an, goiz bizi izan zuten Hego Uribetik eta Txorierritik heldutako dozenaka lagunek Arrankudiagan. Izan ere, Lurgai Fundazioak eta Sagarrak talde ekologistak tokiko basoalantzeko egitasmoa antolatu zuten.

Zehazki, hamabi hektareako lur-saileko jabea Sagarrakeko kidea da eta hitzarmena sinatu du Lurgaiarekin tokiko espezieak sustatzeko.

Berez, duela urte eta erdi moztu zituzten han zeuden pinuak eta ja-

### Otsailean eta martxoan auzolan gehiago deituko ditu Sagarrak Talde Ekologistak

danik beste zuhaitz batzuegatik ordezkatzen hasi dira. Hain zuzen, Zaraobe Institutuko ikasleak lanean aritu ziren urtarrila erdialdean, Komunitatearentzako Lanen ikasgaiaren barruan.

Zortzi espezie ezberdin jarri dituzte, aniztasuna bermatzeko. Guztira, bostehun ale inguru eraman zituzten eta adin anitzeko herritarrek parte hartu zuten landaketan.

Egitasmoaren bultzatzaileek auzolan gehiago prestatuko dituzte otsailean eta martxoan eta Arrankudiaga-Zolloko jendeak ere bat egitea espero dute.

**QUICK PC REPAIR**  
Informatika argi eta erraz



**ETXEZ  
ETXEKO  
ZERBITZUA**  
gainkosturik  
gabe

· Salmenta · Konponketak

· Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxetarako

· Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tikieta diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **REMOVE PLANARI** buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12  
www.quickpcrepair.es · quickpcrepair@quickpcrepair.es

**MEL**  
LIMPIEZAS

3 URTE ZUEKIN

GARBIKETA OROKORRA · MANTENTZE-LANAK · KRISTALAK  
GARBITZEAKOMUNITATEAK ETA BULEGOAK  
LURZORUEN TRATAMENDUA · OBRA-AMAIERAKO GARBIKETA

© MELLIMPIEZAS@GMAIL.COM 747 457 046

JARRAI GAITZAZU!



# herriz herri

## Orozko

Abenduan aurkeztu zuten Orozkoko Udalaren hizkuntza politikaren diagnostikoa, herritarrekin egindako saio irekian.

# Aurrera egin du Orozkon euskara sustatzeko planaren garapenak

Testua **Maidar Ramirez Martin**

Euskararen erabilera areagotzeko hamar urteko AROA plan estrategikoa ezartzeko bidean daude Orozkon, eta dagoeneko hainbat urrats eman dituzte horretarako. Egoeraren analisia egin eta indarguneak eta ahulguneak identifikatu ostean, herrian euskararen erabilera areagotzeko neurriak ematea da planaren xedea.

Horretarako, talde eragile bat aktibatu eta herritarren artean galdetegiak zabaldu zituzten azaroan. Gero, abenduan, herritar eta eragileekin saio irekia egin zuten, jasotakoari buruz hausnartzeko eta, talde dinamika baten bidez hurrengo hamar urteetan euskarak herrian izango dituen erronkak identifikatzeko eta norkegin behar duen zehazteko.

Momentu honetan saioan jasotakoak plan proposamenean txertatzeko lanean ari direla jakinarazi dio UEMAko teknikari Maialen Zuzok Aiaraldea Komunikabideari, bai eta "Udaleko ordezkariekin eta saio irekian parte hartu zutenekin kontrastea egingo delalaster", horren ostean behin betiko plana ezarri ahal izateko.

### Erabileraren beherakada

2021ekoak dira Soziolinguistika Klusterraren hizkuntzen kale erabileraren datuak. Horien arabera, Orozkon jaso zen eskualdeko jaitzierarik nabarmenena, 34 puntukoa, hain zuzen ere: 2011n euskararen kale erabilera % 57,2koa zen bitartean, 2021ean % 23,2koa izatera pasa zen.

Testuinguru hori izanik, Orozko Udalak adierazi zuen konpromisoa hartu duela herritar eta eragileei euskaraz hitz egiteko aukerak zabaltzeko eta bultzatzeko, eta horretarako erraztasunak emateko eta euskara sustatzeko plana garatzen ari dira helburu horrekin.

### Hizkuntza Politika

Beste zenbait ekintzaren artean, Udalaren Hizkuntza Politikaren Diagnostikoa garatu du Euskalgin-



UEMAk antolatutako udalerrri euskaldunetako gazteen udalekua Orozkon. UEMA

tzaren Kontseiluak Orozkon, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa oinarri hartuta.

2016an aurkeztutako dokumentu horiek hizkuntza eskubideak gauzatzeko 185 neurri zehatz jasotzen ditu. Hain zuzen, hizkuntza-politiken alorrean inoizko adostasunik handiena lortu duen dokumentua da, Europako 30 hizkuntza komunitatetako 120 eragileren babesarekin.

Protokoloaren Udal Garapenaren markoan garatu dute Orozko Udalaren diagnostikoa, hiru helburu nagusiri erantzuteko: lehenik, zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzea; bigarrenik, euskaraz lan egiteko eskubidea bermatzea; eta azkenik, udal mailan euskararen normalizazioan aurrera egiteko urratsak ematea.

Eragin eremuari dagokionez, udal administrazioaren barneko eremuari (zerbitzua, komunika-

zioa eta lana) zein kanpokoari (hizkuntza-aisia, eremu sozioekonomikoa, hedabideak eta ingurune digitala, kultura eta onomastika) erreparratu diete.

### Udalaren jarduerak

Udalaren barne jarduerari dagokion 57 irizpide ebaluatu eta horietatik 41 beteta edo ia beteta daudela ondorioztatu dute. Hauek dira Udalak plazaratutako horietako batzuk: euskarari ematen zaion balio juridikoa erabatekoa da; dirulaguntza deialdietan hizkuntza irizpideak zehazten dira; goi mailako lanpostuetuek C1 maila dute gutxienez; eta, deialdi berri guztietan langile euskaldunak kontratatzen dira beti.

Bestela esanda, ebaluatutako 57 irizpideetatik 16 hutsune identifikatu dituzte, horien artean, hauek: langileen euskara ezagutza zabalabada ere, ez dira hainbeste euskara hutsez funtzionatzen duten sailak;

## Udalaren barne jarduerari dagozkion 57 irizpide ebaluatu eta horietatik 41 beteta edo ia beteta daudela ondorioztatu dute

hautetsi guztiekin dakite euskaraz; lanpostuari lotutako gaitasuna frogatu eta langilea lan jarduna euskaraz egiteko gai den egiaztatzeke ez da azterketarik egiten euskaraz; beharrezko hizkuntza-gaitasuna ez duten langileentzako ez da euskarazko formazio planik eskaintzen.

Udalaren kanpo jarduerari erreparratzean, 29 irizpide ebaluatu dituzte, eta horietatik erdiak betetzen direla ondorioztatu.

Esaterako, Udalaren kultura-programazioan euskararen presentzia ezagutza tasaren gainetik dago gazteei begira, baina, ez ordea helduentzako. Halaber, Udalaren esku dauden hedabideetan eduki guztia euskaraz dagoela eta tokiko euskarazko hedabideak laguntzen dituztela ere zehaztu dute. Txanponaren beste aldean, baina, hutsune nagusia eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko plangintza faltan identifikatu dute.



## Aiara

## Sinadura bilketak abiatu ditu Aiarako Udalak Renfeko eta Alavabuseko zerbitzuetan aldaketak lortzeko



Luiaondo Renfeko CIVIS zerbitzuko geltokia izatea nahi dute. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Aiarako garraio zerbitzu publikoa egokia ez dela iritzita, Udalak urrats berriak egin ditu hori konpontzeko. Zehazki, sinadura bilketak bultzatu ditu Arespalditzako eta Luiaondoko udal bulegoetan eta administrazio batzarretan.

Alde batetik, testu batek exijitzen dio Renferitren azkarguztiek (hau da, CIVIS deiturikoek) geltokia izatea Luiaondon. Duela gutxi salatu zuen tokiko erakundeak urtarilean C-3linean indarrean sartutako ordutegiak kalteak eragin dizkiela aiarrarrei eta hori konpontzeko bidea dela ustedute. "Aldaketek ez dute hobekuntzarik ekarri

udalerriko mugikortasunean; aitzitik, kontziliazio-arazoak sortu dituzte, ikastera edo lanera garaiz iristekoak, eta autoa erabiltzera behartu dituzte zerbitzu hori duten beste geltoki batzuetara joateko, trena hartu ahal izateko", salatu dute.

Beste sinadura bilketaren xedea da Alavabuseko L15 eta L16 lineetako autobusei bi geltoki ezartzea Luiaondon. "L15 linearen kasuan, maiztasunak handitzea eskatzen dugu, eta L16 linearen kasuan, herrian sartzea geldialdiak egiteko. Luiaondo, ulertezina bada ere, Aiarako gainerako herrietatik isolatuta geratu da linea horretan, nahiz eta kontzeju jendetsuena izan", jaso du testuak.

## Añesetik Gorobelera doan bidean zementua jarri du Foru Aldundiak

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Arabako Foru Aldundiak urtarrilaren 16an ekingo zion Añesetik Gorobelera doan bide tartean porlana jartzeari. Hain zuzen, herriko bidegurutzetik jadanik zementua dagoen tartea

estali zuten zementuarekin. 50.000 euro inguruko inbertsioa egingo du erakunde foral eta Udalak aipatu du otsoen erasoak izan direla arrazoietako batesku-hartzea egiteko. Azpiegitura hobetuta, artzainek errazago igo ahal izango dute Gorobelera.

## Okondo

## Eguraldi makurrari festa giroarekin egin diote aurre Otaola auzoko San Sebastian jaian



Ekaitzak eta kaxkabarrak ez zuten auzokideen festa giroa galarazi. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Urtarrilaren 20ko San Sebastian eguneko ospakizunari segida eman zioten larunbatean Okondoko Otaola auzoan. Dozenaka lagun bildu ziren goizean goizetik baselizaren inguruan erromeriaz gozatzeko. Eguraldi makurrak ez zuen okondoa-rraren festa gogo galarazi, eta urteroko tradizioei eutsi zieten.

Ohikoan bezala eukalipto bat moztu zuten baselizako erromeria amaituta. Moztutako zuhaitza arrastaka eramane zuten herriguru-

nera eta tabernaz taberna adaxkak banatu zituzten.

### Pintaketa ermitan

Larunbateko ospakizunaren bezperan EAJren Udal Gobernuaren aurkako pintaketa egin zuten Otaola auzoko baselizaren fatxadan. Alderdi jeltzaleak ekintza gogor kritikatu, eta "gaitzespenik irmoena" erakutsi du. Plazaratutako oharrean horrelako ekintzek udalerriko "bizikidetzatza oztopatzea eta degradatzea" helburu dutela salatu du Okondoko EAJk. Horrenbestez, herriko ondareari egindako kalte materiala ere

salatu dute jeltzaleek. "Tamalgarria da batzeko eta ospatzeko lekuak eta uneak erabiltzea mezu iraingarriak eta akusatzaileak igortzeko, inolako irizpiderik gabe eta herritar guztien ondarea eta sentimendua errespetatu gabe. Ekintza horiek zatiketa eragiteaz gain, gastu erantsia dakarkie udal-kutxei, eta zaildu egiten dute baliabide publikoak behar bezala kudeatzea, guztion onerako", jaso dute zabalduetako oharrean. Era berean, "Okondoko ongizatearen alde zintzotasunez eta konpromisoz lan egiten jarraitzeko asmoa" adierazi du Udal Gobernuak.

*Dastatu betiko  
esnearen zaporea*



**EUSKAL HERRIA**  
esnea

egin eskaera [www.ekonomatua.eus-en](http://www.ekonomatua.eus-en)



# herriz herri

Amurrio

## Amurriion jazotako etxegabetzea salatu dute, etxebizitzarena "arazo kolektiboa" dela aldarrikatuz



Dozenaka herritarrek salatu zuten udalerrian gertatutako etxegabetzea. Aiaraldea.eus

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Dozenaka lagun elkartuz iren iragan urtarrilaren 17an Amurrioko udaletxearen aurrean, herrian duela gutxi gertatutako etxegabetzea salatzen.

Agerraldian zehaztu zuten, kaleratutako familiak zortzi urte zeramatzen etxe horretan bizitzen, "eta azken unera arte egon da alokairua hilerok-hilerok ordaintzen".

Salatu zuten, pisua saltzea erabaki zuen jabeak, eta epaitegira jo zuen bertan bizi zirenak kanporatzeko. "Familia honek hainbat erakundetara jo du laguntza eske: Amurrioko Udalak, Etxebide, Alokabide... baina horietako batek berak ere ez dio bizitoki alternatibarik eskaini", nabarmendu zuten.

Gauzak hala, aldarrikatu zuten Aiaraldea ez dela "oasi" bat. "Beste hainbat tokitan bezala, hemen ere ematen dira etxegabetzeak, alokairua lortzeko ezintasuna edota jabeen gehiegikeriak, nahiz eta askotan ezkutuan geratzen diren", azalerratu dute.

Nabarmendu zuten "langile klasearen gehiengoak bere soldataren zati geroz eta handiagoa" bideratu behar duela alokairua edo hipoteka ordaintzera, "beste batzuk horren kontura bizi" diren bitartean.

Agerraldiko antolatzaileen iritziz, erakunde publikoak ez dira "benetako alternatibarik eskaintzen ari", eta "benetako urratsak ematea" exijitu diete, "eskualdean bizi diren pertsona guztiei etxebizitza duina bermatzeko".


**Herritarrei deia**

Herritarrei, aldiz, etxebizitzari lotutako arazoak salatzen deia luzatu zieten, orain arte "gai tabua" izan dela iritzita. "Jende askok isilpean eraman dituzte alokairua edo hipoteka ordaintzeko zituen arazoak, arazo individuala kontsideratu delako, norberaren arrakastaren edo porrotaren seinale izango balitz bezala".

Aurkako diskurtsoa zabaltzen zuten agerraldian, etxebizitzaren "arazo kolektiboa" dela eta "modu horretan" tratatu behar dela nabarmenduz: "elkar sare-tuz, arazoak salatu eta kolektibizatuz eta erantzuleak seinatuz".

Horretarako deia zabalduz amaitu zuten agerraldia, eskualdean "inor soberan ez" dagoela aldarrikatuz.

## Pintaketa homofoboak egin dituzte Amurrio Harroren horma-irudian



Raisa Alavak 2022an margotu zuen horma-irudia. Amurrio Harro

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Pintaketa homofoboak egin dituzte Amurrioko Dionisio Aldama kalean dagoen sexu askapenaren aldeko horma-irudian. Amurrio Harro kolektiboak eman du erasoaren berri sare sozialen bidez, eta gogor gaitzetsi du ekintza.

"Amurrio Harro elkartearen edozein ekintza homofoboren aurka gaude eta pertsona guztien berdintasunarekiko, errespetuarekiko eta duintasunarekiko konpromiso irmoa daukagu, haien sexu orientazioa bereizi gabe", adierazi dute zabalduko oharrean. Amurrioren

inolako diskriminaziorik onartzen ez dutela irmo aldarrikatu dute kolektiboko kideek.

Raisa Alava ilustratzaile amurriarrak diseinatu eta margotu zuen Dionisio Aldama kaleko horma-irudia, 2022ko Amurrio Harro egunaren baitako egitarauaren barruan.

Amurrio Harroko kideek azpimarratu dute hau ez dela gisa honetako eraso homofoboak herrian jasotzen diren lehen aldian. Urrutira joan gabe, 2024ko ekainean, Amurrioko Juan Urrutia enparantzan LGTBIQ+ mugimenduaren koloreekin margotuta zegoen eserlekuari pintaketa homofoboekin eraso egin zioten.

## Alkateak publikoki erantzun dezan, sinadura bilketa abiatu du OHZren igoeraren kontrako taldeak



Elkarretaratzeak egin dituzte azken asteetan. Aiaraldea.eus

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Ondare Higiezinaren gaineko Zergaren igoera ez dela bidezkoa iritzita, beste mobilizazio bat egin zuen atzo herritar talde batek Amurrioko Juan Urrutia plazan. Konponbidea eskatzeaz gain, udal gobernu taldearekin eztabaida publikoa bultzatu

nahi dutela adierazi zuten herritarrek. Horretarako bi bide lantzen ari dira. Alde batetik, ostegun honetan egingo den urtarileko udalbatzara joko dute, eztabaida gune horretan zergaren igoerari buruz galdetzeko.

Gainera, sinadura bilketa abiatu dute bilera publikoak egiteko Txerra Molinuevo alkatearekin, euren argudioei erantzun ditzan.

## Areta

## Ekainaren 14an ospatuko dute Areta Herri Eskolaren mendeurrena

Agerraldia egin zuten ospakizuna iragartzeko. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Prentsaurrekoa egin zuten urtarrilaren 17an iragartzeko Areta Herri Eskolak 100 urte beteko dituela aurten. Guraso elkarteak, ikastetxeke zuzendaritzak eta Audioko Udalak parte hartu zuten agerraldian eta jakinarazi zuten ekainaren 14an jaia antolatuko dute efemeridea ospatzeko.

Hain zuzen, hezkuntza zentroaren historian parte hartu duten guztiei gonbidapena luzatu diete egun horretan jaiaz gozatzeko: "Guztion artean egun ahaztezina sortuko dugu". Momentuz, herri bazkaria antolatuko dutela aipatu dute, eta

ekintza eta sorpresa ugari prestatu nahi dituzte.

### Hezkuntza publikoa

Aretako Herri Eskolaren izaera aldarrikatu zuten prentsaurrekoan, "publikoa, euskalduna, kalitatezkoa, hurbila, guztiona eta guztiontzat" dela nabarmenduta.

Guraso elkarteak da ekimenaren bultzatzailea eta Txetxu Urkijo zuzendariak eta Ainize Gastaka alkateak egitasmoarekin bat egin dutela ardierazi zuten.

Hezkuntza komunitateak mende honetan egindako bidea aldarrikatu zuten: "100 urte hauetan, Aretako hezkuntza komunitate osoaren ahalginiari, lanari eta borrokari esker,

Areta Herri Eskolak zutik jarraitzen du, firme, belaunaldiz belaunaldi koloretsu eta indartsu. Eskola berezia dugu, leku berezian. Areta Herri Eskolako familia, langileek eta, borrokariarik historia egin dute eta haieiesker, belaunaldi berriko familiek itzaropentsu, gogotsu eta ilusioz eutsi diogu erreleboari".

Halaber, azken urteotan bizitako mobilizazio jendetsuak ekarri zituzten gogora: "Azken urte hauek borrokaz eta aldarrikapen ugariz beteta egon dira eta honek Areta herria are gehiago batu egin du. Bereziak gara, bereziak eta bakarrak. Lantaldean aritzeko eta borrokarako prest gaudete beti, batez ere gure eskolarekin zerikusia badu".

## Laudio

## Udalak ziurtatu du otsailaren 4an kirol teknikaria lanean egongo dela

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Urtarrileko udalbatzan zenbait kirol klubeko ordezkariak hitza hartu zuten erakundearen kudeaketari buruz euren iritzia plazaratzeko. Izan ere, taldeen aburuz, orain arte indarrean egon den programaren bitartez bete beharko litzateke kirol teknikariaren postua. Kirola sustatzen duten elkarteak aburuz, arduradunak eskaini duen zerbitzua egokia izan da eta ez dute uste epe laburrean aukerarik dagoen teknikariaren lanpostua berehala egonkortzeko. Horren aurrean, euren eskaera programa zegoen moduan mantentzea zen, urtarrilaren 31n amaituko baita.

### Teknikari berria

Kirol klubek mahairatutako kezkei erantzuteko, Sonia Respaldiza eta Iñigo Martinez Cerrillo zinegotziak hartu dute hitza eta ziurtatu dute otsailaren 4an lanpostuen zerrendan jasotako kirolari teknikariaren postua beteko duen langilea egongo dela.

"Udalerriko kirol-jarduera uneoro egongo da bermatuta, kontratazio honekin behin betiko irtenbide egonkorra bila-

tu nahi dugu", azaldu du Sonia Respaldiza zinegotziak.

Udalak erantsi du teknikaria ez dela bakarrik egongo: "pertsona horrek emango dio zerbitzua arloari; eta arloko gainerako langileen laguntza izango du, arduradunarena, administrazioko langileena eta Udaleko kirol-instalazioko langileena, besteak beste. Zeregin horretan, gainera, gobernu-taldearen eta arloko zinegotziaren babes eta lanikidetzat izango du". Iñigo Martinez Cerrillo Funtzio Publikoko zinegotziak bere aldetik, azpimarratu du erabakia ez dela politikoa, eta legea bete behar dutela: "Martxan jarriko dugun funtzionamendua administrazio publikoaren kontratazio-arauetara mugatzen da, eta ez da inoiz eremu pertsonaletik edo politikotik ulertu behar. Udaleko LPZk arloko teknikari-lanpostu bat aurreikusten du, eta lanpostu horren hutsunea ez da bete sortu zenetik. Horren ordez, administrazioko langileen kategoriari ez dagozkion funtzioak esleitu zaizkion programa sortu da. Gure helburua, gobernu talde bezala, zerbitzua bermatzea izan da, udal organigramak berak aurreikusten dituen giza baliabideak aktibatuz".

HARPIDETZA  
PAPEREAN  
**31€**  
KOMIKI BAT +  
LIBURU BAT OPARI

HARPIDETZA  
DIGITALA  
**20€**  
KOMIKI BAT OPARI



# kultura

## “Grafitia espresio artistikoa badela aldarrikatu behar dugu”

### IZARO CUADRA ETA UNAX MARTIN

GRAFFESTA JAIALDIAREN ANTOLAKUNTZAN MURGILDUTA EGON DIRA. GRAFITIAK AITORTZA BEHAR DUELA ALDARRIKATU DUTE, GARDEAN KOLOREZTATUTAKO HORMAREN AURREAN.



Testua eta argazkia **Aimar Gutierrez Bidarte**

#### Zer da Graffesta?

*Izaro Cuadra:* Eskualdeko artista batzuen ekimena izan da Graffesta, Susterra eta Faktoriarekin elkarlanean aurrera ateratako proiektua da. Grafitiarentzako espazio legal eta atsegina sortzeko zuen helburu, eta lortu egin du. Azaroaren 30ean egin genuen jaialdia, Laudioko Gardeako industriaguneko horma handi batean. Aurreko egunetan buru-belarri aritu ginen horma grafitigileentzako prest uzten.

*Unax Martin:* Peña asko batu zen, gehienak Laudiokoak edo eskualdekoak, baina izan ziren ere Basauriko edo Bilboko grafitigileak ere. Kolore guztietako jendea elkartu zen.

#### Zer nolako harrera izan zuen ekimenak?

*U.M.:* Guztira 57 grafitigile elkartu ziren industriaguneko horman euren piezak margotzera. Baina beste asko piezak begiratzera edo giroaz gozatzera etorri ziren ere.

*I.C.:* Oso pozik gaude emaitzarekin bai. Lehenengo urtea zen, eta ez genuen espero hain ondo aterako zenik. Egia esan, oso gustura geratu gara.

#### Grafitiaren mundutik urrun dagoen jendearen iritzirik jaso duzue?

*I.C.:* Nik uste herriko jendearen artean oso harrera ona izan duela ekimenak, polita iruditu zaiela. Egunen bertan, grafititik oso urrun geratzen den komunitatea ikusi genuen hemen. Bistakoa zen ekimenaz asko disfrutatu zutela. Grafitiaren munduan murgilduta egon ala ez, emaitza ikusgarria denik ezin da ukatu.

*U.M.:* Aiton-amonak ere pasatu ziren hemendik, eta ekimenagatik zoriondu gintuzten. Pareta grisa zena kolorez beteta ikustean jendea zerbait pizten zaio barnean, *brutala* izan da harrera.

*I.C.:* Honelako ekimenak badira ere hain kriminalizatua dagoen arte espresio bat herrira hurbiltzeko, eta beste jende bat erakartzeko.

#### Zer da grafitia zuentzako?

*I.C.:* Funtsean espresio artistikoa da, eta hori aldarrikatu behar dugu. Artea egiteko betse modu bat da.

*U.M.:* Grafitia niretzako bizitza da. Txikitan pintaketak ikusten nituen aldiro, izan politikoak edo ez, flipatu egiten nuen. Oso erakargarria iruditzen zitzaidan. Orain

ni neu naiz hori egiten duena, eta hori *brutala* da.

#### Nola murgildu zineten grafitiaren munduan?

*U.M.:* Nik ondo dut gogoan. Txikia nintzela, Aretako jaietan, aurpegia estalia zuten lauzpabost gazte azaldu ziren bat-batean korrika egiten eta mural bat margotu zuten halako batean. Txundituta geratu nintzen. “Bua! Horrela egiten dute!”, esan nion nire buruari. Geroztik nire mundua izan da grafitia.

*I.C.:* Ni Unax ezagutu nuenean hasi nintzen horrelako grafitiak egiten. Aurretik hartuak nituen esprai latak beste kontu batzuetarako, baina horrelako piezak egiteko sekula.

## “Grafitiari espazio legal eta atsegina bat eskaini diogu Graffestan”

#### Anonimotasunak pisu handia du grafitian.

*I.C.:* Hein handi batean, grafitiak inguratzen duen ilegaltasun horretan du oinarria, norberak bere burua babesteko beharrean. Baina badauka bere xarma ere piezak modu anonimoan egitearen kulturak.

*U.M.:* Niri asko gustatzen zait ezjakintasun hori. Zuk zure buruan irudikatu dezakezu nolakoa den grafiti baten atzean dagoen mutil edo neska hori, baina ezagutzen duzunean eskemak apurtzen zaizkizu normalean. *Guau!* Grafitigilea identifikatzen duen gauza bakarra izen bat da. Oso ona izan daiteke, baina anonimotasunean jarraitu.

#### Graffestaren esperientzia errepikatzeko gogoz?


*U.M.:* Bai, gustatuko litzaziguke horrelako ekimen gehiago antolatu ahal izatea. Arrakasta handia izan du aurten. Ondo legoke ere herrian bertan mural txiki bat egotea urteko egun guztietan grafitigileen eskura, piezak modu legalean margotu ahal izateko.

*I.C.:* Ondo legoke Graffesta ekimena eskualdeko beste herri batzuetara zabaltzea ere.

## babestutako edukia



**2, domeka**  
17:30 - Faktorian  
IZAN INURRI/  
**MINBIZIAREKIN**  
**BIZITZEA,**  
**OLERKIETAN**  
**EMANALDIA**  
DOAN  
#KOMUNITATEFAKTORIA  
#KULTURFAKTORIA



**8, zapatua**  
11:00 - Faktorian  
TAILER BIZIAK/  
**KERAMIKA**  
**TAILERRA**  
AITZIBER DUARTE  
PREZIOA MATERIALA BARNE: 20€  
#BORBOREKARTEA  
#FEMINISMOFAKTORIA



**10etik 15era**  
Faktorian  
SORMEN BEKAK/  
**MURAL**  
**MARGOKETA**  
MARTZEL DO  
NASCIMENTO  
#KULTURFAKTORIA  
#ARTEARNASA



**13, eguena**  
18:30 - Faktorian  
SOLAŞALDIA/  
**MIÑAN**  
AMETS ARZALLUS  
+MARTZEL DO  
NASCIMENTO  
BAZKIDEEK 5€  
EZ-BAZKIDEEK 7€  
#KULTURFAKTORIA



**15, zapatua**  
12:00 - Faktorian  
EKITALDIA/  
**ETAWASOL**  
**ELKARTEA**  
DOAN  
#KOMUNITATEFAKTORIA



**16, domeka**  
18:00 - Faktorian  
BERTSO SAIO  
LITERARIO MUSIKATUA/  
**PLEIBAK**  
MIREN AMURIZA  
MIREN NARBAIZA  
ALAIA MARTIN  
OIHANA BARTRA  
BAZKIDEEK 7€  
EZ-BAZKIDEEK 9€  
#KULTURFAKTORIA



**21, barikua**  
17:00-19:00 - Faktorian  
LUDOTEKA/  
**LURRA**  
**ESNATZEKO**  
**MUSIKA TRESNEN**  
**SORKUNTZA**  
DOAN  
#HEZKUNTZAFAKTORIA  
#KOKORIKO



**22, zapatua**  
19:00 - Faktorian  
ARTE ARNESA/  
**SORMEN BEKEN**  
**JAIALDIA**  
XABI BASTERRA +  
MATX/ GOIZANE  
RODRIGUEZ/  
MARTZEL DO  
NASCIMENTO/  
GARAZI EGIGUREN  
BAZKIDEEK 5€  
EZ-BAZKIDEEK 7€  
#KULTURFAKTORIA



**23, domeka**  
11:00-13:00 - Faktorian  
KOKORIKO/  
**0-3 URTEKO**  
**HAURRENTZAKO**  
**JOLAS LIBRERAKO**  
**ESPAZIOA**  
BAZKIDEEK 5€  
EZ-BAZKIDEEK 6€  
#HEZKUNTZAFAKTORIA



**26, eguaztena**  
18:00 - Faktorian  
KOKORIKO/  
**FAMILIEN KABIA**  
JATEN DUGUNA  
GARA  
DOAN  
#HEZKUNTZAFAKTORIA  
#ELIKADURABURUJABETZA



**27, eguena**  
19:30 - Faktorian  
ATELIERRAK/  
**MARGO ESKOLA**  
SAIO IREKIA  
DOAN  
#KULTURFAKTORIA



**01.29/02.28**  
17:00-20:30 - Faktorian  
ATELIERRAK/  
**ERAKUSKETA**  
MARGO ESKOLA  
#KULTURFAKTORIA

**BARIKURO**

17:00etatik aurrera - Faktorian  
**HAUR ETA FAMILIENTZAKO**  
**JOLASERAKO GUNE**  
**BEREZIA.**

FAKTORIAN EGUNEROKOAN TOPATUKO EZ DEN  
JOLASERAKO MATERIAL BEREZIA TOPATUKO DUTE  
FAMILIEK. FAMILIEK KUDEATUKO DUTE ESPAZIOA.

#HEZKUNTZAFAKTORIA  
#KOKORIKO

AIARALDEA EKINTZEN  
**FAK**  
**TOR**  
**RIA**



WWW.FAKTORIA.EUS



**INFORMAZIO**  
**GEHIAGORAKO:**  
HARPIDETU GURE  
WHATSAPP KANALERA!



# kultura

“Txikitok ezingo du inoiz hezur-haragizko irakasle bat ordezkatu, baina herraminta bat da etxean jolasteko”



**AITOR ALAVA ZURIMENDI** (Zuatza, 1973) DANTZA IRAKASLE ENTZUTETSUA DA ARGENTINAKO EUSKAL DIASPORAREN ARTEAN, ETA ORAIN MUNDU DIGITALERA EGIN DU SALTO TXIKITO PROIEKTUARI ESKER. MUGIMENDUAK GRABATZEKO JANTZI BEREZI BATEN BITARTEZ OINARRIZKO EUSKAL DANTZA IKASTAROA SORTU DU.



Testua eta argazkia  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

## Nor da Aitor Alava?

Jo! Ba Aitor Aiarako bailaran jaio zen gaztea da. Artzinegako Arteko Gure Ama ikastetxean ikasi nuen aurrena, Amurrión gerora. EHU-n Geologia ikasten hasi nintzen, eta ez zitzaidan batere ondo joan. Denbora batera ulertu nuen daltoniko batek nekez gaindituko zuela 3. mailako mineralogia ikasgaia, ez baintuen mikroskopioan koloreak bereizten. Ordutik bueltak eta bueltak eman nituen bizitzan barrena, harik eta 2003an lan istripu bat izan nuen arte. Aretako enpresa batean beharrez ari nintzela, aurretik ebakuntza eginda nuen begia zauritu nuen berriro, eta aski zela esan nuen.

Euskara ikasteko barnetegia batean eman nuen izena, eta ikastaroa bukatuta Argentinara joan nintzen, barnetegian ezagutu nuen argentinar batekin maitemindu nintzelako.

## 2004tik zaude Argentinan beraz.

Hala da, bai. 2004ko uztailaren 20an iritsi nintzen Argentinara, Lagunaren Egunean.

## Dantzari izateagatik ezagutzen zaitugu. Noiz hasi zinen dantzatzen?

Txikitatik egin dut dantza. Etxeko sukaldean aritzen ginen, musika zegoelako. 11-12 urte nituela Aiara Dantza Taldera batu nintzen, eta une batean bost Alava anai-arrebok batera egin genuen dantza bertan. 17 urte nituela hasi nintzen euskal-dantza eskolak ematen, Edorta Yaldeberek bultzatuta. Hor hasi zen guztia.

## Nola eragin du Argentinako egonaldiak zure dantzari ibilbidean?

Lan ugaritan ibili nintzen Argentinara iritsitakoan, diasporarekin edota euskal-ekintzekin lotutako lanak gehienak. Lan elkarrizketaren bat edo beste ere egin nuen, eta inoizko esperientziarik txarrena bizi izan nuen horietako batean.

Horrela ibili nintzen 2008ko maiatzean Llavallol herriko Euskal Echean beste elkarrizketa batera deitu ninduten arte, Euskal Jaiko dantza irakasle izateko. Espero ez zituzten gauzak kontatu nizkion elkarrizketa egin zidan tribunalari. Genero folklorea irakatsiko niela esan nien; hau da, neska zein mutilek berdina dantzatuko zutela. Harrituta begiratzen ninduten: “Zer esan nahi du

horrek?”. Agurra guztiek dantzatuko zutela erantzun nien nik. Eskema guztiak apurtu nizkion. Diasporaren oinarria diren topikoekin apurtzea zen hori. Hor topatu nuen nire Argentinako dantzari *singladurako* lehen erronka, topikoekin apurtzea.

Nire harridurarako, elkarrizketatik astebetera jaso nuen Euskal Echearen erantzuna, irakasle izateko hautatu ninduten. Horrela hasi nintzen. Eskola gutxi batzuekin ekin nion irakasle lanari, eta gaur egun garrantzia nabaria duen figura naiz Argentinako diasporan: 9 eta 18 urte arteko ikasleei ematen dizkiet dantza eskolak, departamentuko zuzendaria naiz...

## Irakasle izateaz gain, ikasketak ere egin dituzu Argentinan.

Musika irakasle izateko titulazioa eskatu zidaten. Nahiko gaizki tratatu ninduten irakasleek, baina promozioa lehen izan nintzen. Argentinako folklore irakasle izateko titulu nazionala dut orain, baita dantza-komunitario eta antzerki irakasle izateko goi-mailako titulazioa ere.

Horri esker Euskal Echean eskolak emateaz gain, Buenos Airesen tango eskolak ematen ditut orain.

**Azken asteetan hainbat medioetan azaldu zara Txikito proiektuaren atzean dagoen dantzaria zarelako. Zer da zehazki Txikito proiektua eta nola murgildu zinen horretan?**

Txikito, funtsean, DT Creativos enpresak garatutako proiektua da. Pandemia garaian sortu zuten proiektua. Figura digital bat da, denboraren poderioz euskal kulturaren enbaxadore bilakatu dena. Enbaxadore horrek gauza asko egiten ditu: arraun, surf, harriak jaso...

Halako batean Txikito pertsonaia dantza irakasle ere izan zitekeela otu zitzaion David Tazueco DT Creativos enpresako zuzendariari. Mugimenduak grabatzeko jantzi bat sortu zuten horretarako. Prozesu luzea izan zen, software bat sortu bear izan zuten programatzaile batenkin.

Behin jantzia zutela, honen barruan sartuko zen norbait behar zuten, eta kasualitatez nirekin egin zuten topo.

Argentinan ospatzen den Euskal Jaira bertaratu zen DT Creativoseko kide bat, Txikito *merchandising*-a saltzera. Saltzen zituzten produktuen artean txikito edalontzi serigrafiatu bat zegoen, eta nik edalontzi hori hainbat euskal dantzetan ere erabiltzen zela erakutsi nien. Bideoa grabatu zidaten eta sare sozialetara igo. Horrela ezagutu ninduten.

Handik denbora batera DT Creativosen deia jaso nuen, Txikito pertsonaia dantza irakasle bilakatu nahi zutela. Baietz esan nien.

**Lan mardula izango zen hutsetik dantza ikastaro osoa sortzea, ezta?**

Ez nuen opor egunik izan. Txosten bat prestatu nuen. Eskola guztiak transkribatu nituen, gero “maisur digitalak” azalpenak emateko. Mugimenduak grabatzeko

## “Diasporaren oinarria diren topikoekin apurtu nuen Argentinan dantza irakasle hasi nintzenean”

jantzia erabiltzea gauza ikusgarria da, baina atzetik lan handia dago. Prozesu didaktiko zehatza jarraitu dugu. Publikatu den lehenengo dantza eskola digital honetan oinarritzko urratsak irakasten dira, euskal dantzetan hastapenak. Horretarako nik ohikoan erabiltzen dudana dantza erreperatorioa aukeratu nuen.

2024ko martxoan grabatu genituen mugimendu guztiak, Buenos Airesen bertan. Orain, 2024ko abenduan, dantza ikastaroaren bigarren denboraldia grabatu dugu. Laster egongo da erabilgarri, eta lehenengo denboraldian ikasitako dantza eta mugimenduen jarraipena izango da, koska bat zailagoak, ikasleek maila hobetu ahala aurrera jarraitu ahal izateko. Denboraldi berrian pare bat dantza tekniko sartu ditugu, Zuberoako dantzaren bat ere. Bigarren grabaketa hau Bilbon egin genuen, DT Creativosen estudioetan.

Hirugarren denboraldia egongo da, jauziak irakasteko, ezin dut gehiago aurreratu.

**Nolakoa da mugimenduak grabatzen dituen jantzi berezi hori erabiltzea?**

Prozesu neketsua da. Mugimendu bakoitza hiru-lau aldiz errepikatzen da, eta horrez gain betse kamera baten kanpotik grabatzen ditu mugimenduak ere. Batzuetan mugimendu batzuk kamera motelean bezala grabatu behar dira.

**Pozik emaitzarekin?**

Bai. Nik uste tresna baliagarria dela. Txikitok ezingo du inoiz hezur-haragizko irakasle bat ordezkatu, baina erreminta bat da etxean jolasteko eta euskal dantzetara hurbiltzeko. Familian jolasteko tresna da. Nabari dut mutil gazteak dantzetatik urruntzen ari direla, Txikitok agian balio dezake haurrak dantzetara erakartzeko.



Aitor Alava da txikito pertsonaiaren atzean dagoen dantzaria. A.A.



# argazki erreportajea

Aiara Gazte Music Fest jaialdiak eskualdeko talentu musikala elkartu zuen Amurrio Antzokian. Aiaraldea Komunikabideak zuzenean eskaini zituen Cuatro Bancos, Gwa Ya, Belgorri, Matx eta Deriba taldeen kontzertuak.

## Aiara Gazte Music Fest jaialdiak eskualdeko harrobi musikalaren sasoi ona taularatu du



Testua eta argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Aiaraldeko harrobi musikala sasoi dagoela erakutsi zuten bertan Amurrio Antzokiko oholtza gainean. Aiara Gazte Music Fest jaialdiaren lehenengo edizioak Cuatro Bancos, Gwa Ya, Belgorri, Matx eta Deriba banda lokalak elkartu zituen, Antzokiaren XX.

urteurrenaren aitzakiarekin.

Estilo eta erritmo anitzek egin zuten bat oholtzan, baina guztiak Aiaraldeko sor-markaren pean. Alex Yarza bateria jolea pozik azaldu zen 4 Bancosen kontzertua amaitu berrikan jaialdiaren lehen edizioak izandako harrerarekin, eta eskualdeko musikarien kalitatea eta kantitatea goraipatu ditu, banden "gaztetasuna" azpimarratuz.

Malen Atxa Matx-ek Aiaraldeko gazte sortzaileek "aukera eta espazioak" behar dituztela aldarrikatu zuen Aiaraldea Komunikabideko mikrofonoetan. Norabide horretan mugarria izan daitezke Aiara Gazte Music Fest bezalako topalekuak.

Aiaraldea Komunikabideak zuzenean eskaini zuen jaialdia. Kontzertu guztiak ikusgai daude Aiaraldea.eus atarian.





## argazki erreportajea



# kirola

**“Eskaladan asko saltzen da dagoen ‘rollo’ ona, baina, gizartearen biolentziak baldin badaude, hemen ere egongo dira”**



**MARIA FRANCISCA MAS RIERA** (Palma, 1993)

ESKALADA IKUSPEGI FEMINISTATIK JORRATZEKO HAINBAT LIBURU ARGITARATU DITU, ETA *DEPORTE DESDE LOS MÁRGENES* JARDUNALDIEN HIRUGARREN EDIZIOA ANTOLATZEN ARITU DA ORBEKO ETXEAN.



Testua eta argazkiak **Txabi Alvarado Bañares**

**Escalantes izan zen argitaratu zenuen lehen liburua, 2021. urtean. Unibertsitaterako lan batetik sortu zen proiektua, ezta?**

Hori da. Lau eskalataile elkarrizketatu nituen Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterreko tesinarako. Pena handia ematen zidan material horrekin ezer gehiago ez egitea, niretzat oso baliotsua zelako. Gauzak hala, lau elkarrizketa egitetik hogeigitera pasa nintzen, eta hortik atera zen liburua. Azken bertsio horrek ez du zerikusirik unibertsitateko lanarekin, baina oso proiektu polita izan zen, oso harrera ona izan zuelako, ez soilik saldu zen ale kopuruari dagokionez, baita jendearen erantzunaren aldetik ere. Gauza oso bereziak esan zizkidaten, hala nola oso ederra zela behingoz horrelako begirada plazaratzea eskaladaren inguruan.

**Zer dute komunean libururako elkarrizketatutako hogeigirekin? Zer ondorio edo hausnarketa partekatzen dituzte?**

Liburua entsegu baten modukoa da, nire pentsamendu eta bizipenak jasotzen dituena, eskalatzen duen pertsona bat naizen heinean. Hausnarketa horiek hogeigirekin emakume eskalatailearen elkarrizketekin elkar lotzen dira.

Hori da guztiek partekatzen dutena: denak identifikatzen direla emakume moduan eta denek eskalatzen dutela. Baina ez da aintzat hartzen duten maila, praktika horretara bideratzen duten denbora... Nire ideia emakume eskalataileek hitz egitea zen, batez ere, mahaigainean jartzeko genero-alborapena dela eta zer gauza bizitzen dituzten: diskriminazioak, biolentziak... edo, besterik gabe, egoera ezberdinak plazaratzea, euren esperientzia balioan jarriz, eliteko kirolariak, ezagunak edo lorpen handiak egiten dituzten pertsonak izateko beharrik gabe.

**Emakume ezberdinak dira, baina badituzte gauza ugari komunean.**

Bai. Generoa da puntu komune-tako bat. Hogeigirekin alde dago elkarrizketatu gazteenetik nagusienera. Nik nabarmenduko nuke guztiek bizi izan dutela generoarekin erlazionatutako diskriminazio motaren bat eskaladan, maila handi edo txikiagoan eta modu argi edo lausoagoan identifikatuta ere.

Horietako askok garrantzi berezia ematen diote mendian, naturan, eskalatzeari. Zenbait hitzaldi eta

aurkezpenetan eztabaidatu dugu badagoela joera mendira joatea erromantizatzeke.

Elkarrizketatu guztiek dute eskalada euren bizitzetan oso barnertuta, eta ez horrenbeste kirol moduan, plazer eta mundua ikusteko modu bezala baizik. Gutxienekoak dira eskalada kirol huts moduan ulertzen dutenak, eta hori kontuan hartuta elkarrizketatuen artean badagoela txapelketetara aurkeztu edo profil profesionala izan duenik ere.

**“Rokodromoa bezalako espazio itxien kasuan, eskatu gabeko aholkuek hitz egin ahalko genuke, edo uneoro alerta egon beharraz”**

**Eskaladan ematen diren diskriminazioak egungo gizartearen isla dira, edo badaude kirol praktika horretan bereziki erreproduzitzen diren joera batzuk?**

Zaila da marra zehaztea, nik egirikoa ez delako ikerketa akademikoa, lagin esanguratsu batekin osatutakoa. Nik ausaz hartu dut jendea, hainbat arrazoi medio. Baina badaude nik biolentzia matxisten barruan sartuko nituzkeenak gauza batzuk.

Eskalatzen duten bikote heterosexualen kasuetan, adibidez, emakumea ikusez inago bilakatzen da, zailtasun maila berean egon arren.

Nola ez, lehiaketetan kategorio binario bat dago eta sariak ezberdinak dira gizon eta emakumeen kasuetan. Nik ez dut inoiz ulertuko hori: termino binarioetan hitz egin da, gizon eta emakumeak zailtasun bera eskalatzera iritsi badira, ez dut ulertzen zergatik irakurri behar den modu ezberdinean kasu bakoitzean. Kirol honetan dena ez da indarra, pisua ez altuera. Gorputzen aniztasuna hor dago, beraz.

Txapelketatik harago, ohikoa da eskalada gunera joateko orduan komentarioak jasotzea ezagutzen ez dituzun gizonen partetik, zure

gorputzari edota gaitasunei buruz; zuk ezin okupatzea espazioa inbadituta sentitu gabe... Rokodromoa bezalako espazio itxien kasuan, eskatu gabeko aholkuek hitz egin ahaliko genuke, edo unero alerta egon beharraz.

### Baina eskaladak baditu baita eraldatzaileak izan daitezkeen zenbait ezaugarri ere, ezta?

Nik ez dut ahalduntze terminoarekin asko bat egiten, baina *Escalantes* liburuan elkarrizketatutako emakumeek nabarmentzen zuten eskaladak ziela euren gorputzarekin ausartago, indartsuago eta ahaldunduago sentitzeko balio.

Eskaladak zure egunerokotik at kokatzen zaitu: pareta batean zaudete, eskegita, lurretik metro batzuetara, bideratu beharreko zailtasun eta estres mailarekin... horregatik, horren ostean, eurak kapazago ikusten zuten euren burua beste estres egoera batzuei aurre egiteko.

Arnasa eta zure burua kontrolatzea, beldurrari aurre egitea... askotan sentitzen dugu beldurra, eta baita eskalatzeko orduan ere. Edozein kirolek izan ditzazke onurak, baina eskaladaren kasu zehatzean posiblea da etxera irakaspenak eramatea, sekulako errendimendu edo emaitzarik bilatu gabe.

Emakumeetako askok ihesbide bezala ere bizi dute, egunerokotasunetik, hiritik edo herritik atera eta naturara eramaten zaituena.

### Komunitatea eraikitzeke ere balio du eskaladak?

Baita ere. Elkarrizketatutako emakumeetako askok hitz egin zuten geroz eta afinitate handiagoko jendearekin eskalatzearen inguruan.

Badaude euren bikotekidearekin edo gizonetzkoekin eskalatzeko hasitakoak, esperientzia guztiz atsegina izatera iritsi ez direnak, eta beste horren bila jotzen dutenak.

Gero bakoitzak ebatzen du norekin dagoen eroso, baina soka berean doazen pertsonen arteko harremana eta elkar-zaintza nabarmentzeko zerbait bada, beste kirol praktika batzuetan topatzen ez dena.

Badirudi eskalada oso indibiduala dela, zu bakarrik zaudelako arrok, baina errealitatea ez da hala: ez da ohikoa bakarka eskalatzeko. Horregatik, asko lantzen da zure segurtasuna bermatzen ari den pertsonarekin duzun konexioa.

Nik beti diot gauza bera: edozein kirol da gizartearen isla. Gauzak hala, gure gizartean komunikazio txarra edota biolentziak baldin badaude, kirolean ere egongo dira. Eskaladan asko saltzen da dagoen "rollo" ona, baina hemen inor ez dago bekatuetatik libre, ez bere

etxean ezta landa-eremuan ere.

### Eskaladaren barruko komunitatearen eraikuntzari bete-betean erantzuten dio zure bigarren libururak, *Ingrávidas* (DDT, 2023) izenekoak.

Erabat. Hainbat aurkezpen eta ekitaldi ez-misto egin genituen zeinetan pertsona pilo ezagutu nituen, euren esperientziak partekatu zizkidatenak. Hainbat idazki agertzen joan ziren, eta baita eskaladaren inguruan hitz egiten jarraitzeko gogoak, baina beste toki batzuetatik.

Hedabide *mainstream*-etatik saltzen dizkiguten errelato mega-epikoak dira, tontorren igoeran edo eskalatzailer batzuen lorpenetan zentratzen direnak, modu kuantitiboan neurtuta.

Horregatik, bazegoen beste toki batzuetatik hitz egiteko beharra eta gogoak. *Ingrávidas* da bidean topatzen dudana jende eder guzti horren emaitza, narratiba ezberdin bat sortzeko gogoetatik sortutakoa.

### Argitaratu duzun azken liburuan (*Maternidades escalantes*, DDT 2025), aldiz, ikuspegi akademikoago batera itzuli zara, amatasuna eta eskaladaren arteko harremana jorratzeko.

*Ingrávidas* liburua eratzen ari zen garai berean nik banuen buruan bueltaka amatasunen gaia. *Esca-*

*lantes* libururako elkarrizketen zirriborroa sortzen nengoenean ez nuen esparru hori jorratu, ez zelako niri eragiten zidan afera. Baina gaia ateratzen joan zen elkarrizketatuetako batzuen artean, batzuk jada ama zirelako, beste batzuk horretan pentsatzen ari zirelako eta beste batzuk laster izango zirelako. Nik ezin nuen beste alde batera begiratu, eta atal bat dedikatu nion liburuan.

Gai hori ikertzen jarraitzeko gogoak sartu zitzaizkidan. Pertsona zehatz batek jartzen du gorputza haurdunaldian eta edoskitzaroan zehar. Emakumeek uko egiteaz hitz egin zuten, aldaketa fisikoez... eta bide hori jarraitzeko gogoak sartu zitzaizkidan.

Baina *Ingrávidas* proiektua agertu zen, eta ahaztu egin nintzen gai horretaz. Horren ostean berreskuratu nuen berriz. Izan ditut zalantzak, nahiko argi dudalako nik ez dudala ama izan nahi.

Baina eskalatzailer hauek gai bat ireki zuten nik garatu eta itxi nahi nuena, eta horretarako modurik egokiena iruditu zitzaidan *Escalantes* liburua aldaera bat egitea gai hau ardatz hartuta.

Gainera, sare sozialetan azkenaldian nik soilik ikusten ditut "superemakume" irudia indartzen duten profilak, niretzat dagoeneko oso zaharkitua geratu dena. Dena-

## “Soka berean doazen pertsonen arteko harremana eta elkarzaintza bada aipatzeko zerbait, beste kirol praktika batzuetan topatzen ez dena”

rekin ahal duten emakumeak: lana, ikasketak, hazkuntza, eskalada... Badirudi batzuetan feminismoarekin aurrera egin behar apur bat atzera goazela.

Uste dut, beste behin, hedabideetatik saltzen ari zaigula gauza bat ez dena erreala. Nahi nituen narratiba batzuk horrekin apurtuko zutenak eta hitz egingo zutenak ukapenez, beldurrez, ezintasunez... eta hau izan da emaitza.

### Liburuei lotuta daude *Deporte desde los márgenes* jardunaldiak. Hiru liburu plazaratu dituzu orain arte, eta igandean Orbeo Etxean egin zenuten jardunaldien hiru garren edizioa. Nola elkar-elikatzeko dira bi ekimenak?

Helburua arestian aipatutako komunitate horren eraikuntzan jarraitzea da. Nik ez dut nire burua kirolaritzat hartzen, beste begirada batetik gozatzen dut eskaladaz eta mendiaz, eta gogoak nituen hori sustatuko zuten jarduera edo topaketak egiteko. *Escalantes* liburua aurkezpenetako batzuetan tailer ez-mistoak egiten genituen lehenago. Orduan, nire asmoa zen formatu horiek batu eta handitzea, liburua aurkezpenera egin beharrik gabe. Eskaladaz hitz egiten jarraitzeko, baina kirola beste begirada batzuetatik jorratzen zuen jendea batuta.



# kirola

PILOTA

## Asier eta Aimar Amondo barne dituen hautagaitza gailendu da Euskal Pilota Federazioko hauteskundeetan

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Asier Amondo Euskadiko Pilota Federazioko presidenteorde izango da, Joxe Mari Mitxelenak urtarrilaren 25ean Abadiñon izandako hauteskundeak irabazi ostean. Asier Amondorekin batera Aimar Amondo semeak ere parte hartu du Mitxelenaren Pilota Zazpi Haizetara hautagaitzan. Zehazki, euren zerrendak 47 bozajaso zituen eta besteak 30.

Mitxelenak Gotzon Enbilen lekukoa hartuko du federazioaren gidaritzan. Zuzendaritza berriak Euskal Herriko pilota klubak indartzea izango du helburu nagusia, federazioa "kluben kluba" bilakatzeko. Halaber, Euskal Selekzioa ofizial bilakatu ondoren, selekzioa zazpi lurraldeetako jokalariz hornitzeko lan egingo dute ere.

**Amondotarrak pozik**

Aiaraldea Komunikabideari adierazi diotenez, oso positibo-

ki baloratu dituzte hauteskundeak audioarrek: "Emaitzen balorazioa egin behar badugu, balorazio ona egiten dugula, % 80ko partaidetza izan du hautatze-prozesuak, boz eskubidea zuten 96 klubetik 77 bertaratu baitziren Abadiñora. Eta 77 boz horietatik Pilota 7 Haizetarak 47 boz eskuratu ditu. Egia esan, emaitza justuagoa izango zela pentsatzen genuen eta hemendik gugan jarritako konfiantza eskertzea baino ez zaigu gertzen". Edonola ere, Asier eta Aimar Amondok Pilota Zazpi Haizetara taldearen izenean federazioko kide guztiei eman dizkiete eskerrak, euren alde bozkatu ala ez: "Hemendik aurrera lanean jarriko gara, elkarlanean, pilotak denon beharra duelako. Epealdi berri honetan pilotaren inguruko estamentu guztien ekarpenak, kezkak, indarguneak... dena jaso nahi dugu, urratsak elkarrekin eta elkarrentzat egin behar baititugu".

BOLA

## Esther Gonzalez eta Joseba Miras garaile Luiaondoko Neguko Bola Txapelketan



Azken urteetako parte hartzerik altuena izan da aurtengoa. [Aiaraldea.eus](http://aiaraldea.eus)

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Esther Gonzalez eta Joseba Miras gailendu dira Luiaondoko Neguko Bola Txapelketan, emakumezkoen eta gizonezkoen kategorietan, hurrenez hurren. Larunbatean jokatu zen finala herriko bolatokian, eta azken tirada horietako puntuak batuta

osatu dute azken sailkapena. Garaipen berezia izan da honakoa bi txapelkuntzat, bikotea dirrelako eta honakoa izan delako Gonzalezek irabazi duen lehen txapela. Txapelketako antolatzailak pozik azaldu dira aurtengo edizioak izango harreragatik. Izan ere, 81 parte hartzaile egon dira guztira.

ARETO-HOCKEYA

## Garaipen historikoa lortu dute Laudioko Hockey taldeek



Ganbegi Hockey Taldea da Euskadiko Txapelketa. [Aiaraldea.eus](http://aiaraldea.eus)

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Laudioko hockey komunitateak hitzordu garrantzitsua izan zuen iragan urtarrilaren 26an. Izan ere Granja kiroldegian jokatu zen Areto Hockeyko Ohorezko Mailako Euskadi Txapelketako azken jardunaldia. Audioarreke zuten hutsik egin eta txapelketako lehen eta bigarren postuak eskuratu zituzten Ganbegi HT eta Hockey Laudio taldeek, hurrenez hurren.

**Ganbegi HT faborito**

Jardunaldi bikoitzarekin ebatzi zen Euskadiko Txapelketako emaitza, eta Ganbegi HT faborito gisa iritsi zen azken jardunaldia. Txapelketako lider ziren laudioarrak, aurreko jardunaldietan bi partida irabazita eta beste bi berdinduta. Etxeko bigarren taldea, Hockey Laudio KE, aldiz, Kale Lagunak talde donostiarrekin berdinduta iritsi zen urtarrilaren 26ko hitzordura. Azkenik, CHS Getxo taldea sailkapeneko azken postuan iritsi zen Granja kiroldegira, bi punturekin.

Ganbegik ez zuen huts egin eta garaipen irmoa lortu zuen Kale Lagunak taldearen aurka jokatu-

**Areto Hockeyko Ohorezko Mailako Euskadi Txapelketako lehen eta bigarren postua erdietsi dute Ganbegi HT eta Hockey Laudio taldeek**

tako lehen partidari, 5-4. Matematikoki txapelketako garaipena eskuratuta zuela, lasaitasunez egin zioten aurre audioarrek Getxoko hockey taldearen aurkako azken partidari, eta 3-5 gailendu ziren bizkaitarren aurka.

Hockey Laudio taldeak ere etxerakolanak txukun bete zituen. Kale Lagunak taldea 3-6 menderatzea lortu zuten lehenengo partidari, txapelketako bigarren postua automatikoki kolporatuz. Getxoren aurka jokatu azken partidari ere fin ibili zen Hockey Laudio, eta 5-2 irabaztea lortu zuen.

**Garaipen historikoa**

Lorpen historikoa da Laudioko bi hockey taldeek eskuratutakoa; Areto Hockeyko Ohorezko Mailako Euskadi Txapelketako txapelketa eta azpitxapelketa titulua eskuratu dute eta.

Ganbegi HT Espainiako Areto Hockey Txapelketako sektore farsari ekingo dio asteburu honetan bertan. Santanderren jokatu da kanporaketa fasea, eta bertan RGC Covadonga, Universidad de Sevilla, CSA Ourense eta CH Sardinero taldeekin egingo dute topa audioarrek.

# herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Otsailaren 12an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



## Elena

Zorionak Amatzu Elena, egun polit bat pasatu zure egunean

**Untzizu eta familia**



**BIDALI  
ZURE  
ZORION  
AGURRA!**

## Denborapasak

### OSO ERRAZA

		3			7			5
	7	2				3	4	
4		5		3	2			7
	2			7	4			6
5		8		2			3	
	4			6				8
		4	7		6	5	9	
7	5	6	2	9			8	3
8		9	5	4	3		7	2

### OSO ZAILA

			4		2		7	3
				3			9	1
	9						8	
				7				
		4	2					
	3	6	5					
3	8	7			4	2		
6		9			7	4		
			8		5			

**DENBORAPASEN SOLUZIOAK** Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/denborapasak>

## Zozketa



**Pleibak bertso saio literario musikatuaz gozatzeko sarrera bikoitza zozkatuko du Komunikabideak**

**Pleibak bertso saio literario musikatuaz Faktorian gozatzeko sarrera bikoitz baten zozketa Parte hartzeko sartu [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus) atarian **Zozketaren data:** Otsailak 7, 14:00etan.**

## IRAKURKETA GUNEA

### PIZTIAK BIZI DIREN TOKIA

**Idazle eta Ilustratzailea:** Maurice Sendak

**Itzultzailea:** Koldo Izaguirre

**Editoriala:** Kalandraka

Bihurrikeriak egiteagatik, bere logelara sartzen bidaltzen dute Max. Hor hasten da bere bidai-magikoa, munstroak bizi diren tokira. Bertan bere beldurrekin eta bere barneko munduarekin jolastu eta borrokatu egin beharko du pertsonaiak.



### ABENTURA ERRALDOIA SALBA DEZAGUN KALEJIRA

**Idazlea:** Gorka Bereziartua Mitxelena

**Ilustratzailea:** Adur Larrea Eguren

**Argitaletxea:** Argia

Jaietan ez al dituzte erraldoiak aterako? Narratiba honen pertsonaiek ez dute utziko hori gertatzen. Abenturaz beterik, lortuko al dute?



## JOLAS GUNEA

### TRADIZIOAK

Tradizioak aldatu ezinak direla ematen du, baina gaur ditugun tradizioak noizkoak dira? Ez al dira guregana aldatuta iritsi?

Garai honetan lurra esnatzeko tradizioa aspaldikoa da, gure aurrekoek ere egiten zuten, erlijio katolikoa indarra hartu aurretik ere, Amalurri abesten zitzaion esna zedin.

Horregatik, Agate Deuna, Santa Ageda eta santuak alde batera usteko proposamena da hau eta naturari lotuago dauden ohiturak berreskuratzeko deia egiten dugu lerro hauetatik.

Euskal Herriko herri ezberdinetan lurra esnatzeko modu ezberdinak jorratu dituzte, gure eskualdetik hurrutiago, lurra esnatzeko asmotan, joale handiak jarri eta herri batetik bestera mugitu izan dira joaldunak beraien txin-txin hotsekin.

Gure lurretan oraindik ateratzen dira Oilarra eskuan dutela abestera, Oilarraren Kukurrukuarekin lurra esnatzeko asmotan. Eta zabalduago dagoen ohitura da makila hartu eta lurra kolpatzea, lurrari kolpez-kolpe esnatzen joateko esanez.

Ohitura hauek egiteko, ordea, ez dago abesti askorik, kutsu erlijiosorik ez duena. Hemen bi abestiren zati bana ekartzen ditugu zuen hurrekin erabiltzeko:

#### 1. KOKORIKOK ATERATAKO Kantu Kontari CD-liburutik Arrankudiagako abestia:



Eguenzuri, eguenzuri  
auzolan egun ospetsu!  
bihur dezagun une beltz oro  
elkarrekin koloretsu!

#### 2. PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTSEN Oles Oles abestia:

Oles Oles lurra esna zaitetz  
Oles Oles lurra esna zaitetz!

Harrausi egin du basoak, zuhaitzek zabaldu besoak  
Kantuan hasi dira birigarroa eta zozoa



Urte zaharrari agur, berriari kosk! Denboraren mugimendu amaigabean, urte berria etorri zaigu. Urte berriarekin asmo berriak omen datoz, nik, aldiz, amets zaharrak errealitate bihurtuko ote diren galdetzen diot urte berriari.

Aurten izango ote da urtea zeinetan mundua haurra- ikuspuntutik eraikitzen dugun? Aurten izango da urtea hiriak diseinatzean kotxea baino gehiago haurra izango den kontuan? Aurten izango da urtea haurra pertsona oso bezala, bere eskubide eta betebeharrekin kontuan hartuko duguna? Aurten izango ote da urtea haurtzaroaren kultura ulertu, errespetatu eta kontuan hartuko duguna? Aurten konpartituko ditugu momentu gehiago gure umeekin, eguneroko estres eta erritmoak geldituz? Aurten izango da urtea jolasari, behar den garrantzia aitortuko dioguna eta gehiago jolastuko garena? Aurten izango da urtea pantailak apur bat alboratuko dituguna eta mundu digitaletik errealerara salto egingo duguna? Aurten gure amalurra gehiago maiteko dugu eta harreman handiagoa izango dugu berarekin? Aurten eraikiko ditugu pertsonen arteko harreman sanoagoak eta haurrak genero roletatik at hezi?


Urte berria aurrean dugu, munduak norabide ezberdinak hartu ditzake, eta korrontearekin batera arraunean aritu gaitezke edo korrontearen kontra beste norabide bat hartu. Guk aspaldi hartu genuen aukera zailena eta 2025. urte honetan ere, korrontearen kontra, haurra erdigunean kokatzen jarraituko dugu. Aldaketa txiki eta kolektiboetan sinisten dugulako. Kolektiboki arraun eginez, aldaketa txikiak elkarrekin hausnartzen, amesten eta egia bihurtzen sistemaren korrontearen kontra egin daitekeelako.

Aurten ere Kokoriko Hezkuntza Faktoria bide horretan kokatuko da, mundu bizigarria amesten dugulako, haurren eskubideak, beharrak eta mundua ikusteko zein eraikitzeko era erdigunean jartzen jarraituko dugu. Gurekin jolasteko prest?

# Lapurrak!

Zenbat lapur ikusten dituzu etxe barruan, inguruan edo barrura sartu nahian?

Bide batez, margotu.



# Hara!

Besterena baimenik gabe hartzen duenari nola esaten diozu zuk? Lapur? Badu beste izenik ere, hemen sei aurkituko dituzu. Zirriborra itzazu zuzenak ez diren hirurak.

TXORIBURU

ZIRTOLARI

XISKALARI

EBASLE

LITXARRERO

HARRAPARI


HIGUINGARRI

ESKULUZE

OHOIN


# 1 Engainagarriak

Sei biribil hauetatik bi iruditik hartuta daude eta gainontzeko laurak engainagarriak dira, hau da, ez datoz guztiz bat irudiarekin. Bereiz itzazu.




# Hamarrekoa

Aurkitu bi eskiatzaileen artean dauden aldeak. 10 dira guztira.



Eman kolorea gure laguntxo hauei, merezi dute eta.

# SOLUZIOAK



# Kontra

## Mundutik Aiaraldera

Paul Gillett



### Finn Stephan Hageneier

JAIOTERRIA  
**BARMING (DANIMARKA, 1968)**

BIZILEKUA  
**LAUDIO**

BIDAIAREN XEDEA  
**BIKOTEKIDEAREKIN BIZITZEKO ASMOZ ETORRI ZEN**

### DANIMARKA



#### DESKRIBAPENA

Iparraldeko Europako herrialdea da. Monarkia-konstituzionala du gobernu eredu. Jutlandiako penintsulak eta zenbait uhartek osatzen dute herrialdea, baina bi lurralde autonomo ditu Ipar Atlantikoan: Groenlandia eta Faroeak.

#### AZALERA

42.952 kilometro koadro.

#### BIZTANLEAK

5,87 milioi biztanle.

#### HIZKUNTZAK

Daniera da hizkuntza ofiziala. Groenlandian eta Faroe uharteetan hizkuntza propioak dituzte.

#### Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte  
**Tirada:** 10.000 ale.  
**Maiztasuna:** Hamabostekaria  
**Lege gordailua:** BI-1230-2013  
**Posta elektronikoa:**  
egunkaria@aiaraldea.eus  
agenda@aiaraldea.eus  
erredakzioa@aiaraldea.eus  
**Publizitatea:** publizitatea@aiaraldea.eus  
**Tifnoa:** 688 62 53 94  
**Helbidea:** Errotari kalea 4-8 pabilloia, Laudio, Araba. 01400  
**Telefonoak:** 94 656 85 54/688 62 59 00  
**Web-gunea:** www.aiaraldea.eus  
**ERREDAKZIO OHARRA:** Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

#### ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzzen Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Amets Meaza, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunat Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku

## “Danimarkak, kolonizatzaile orok bezala, txarto egin du, baita Groenlandian ere”

#### Nongoa zara jatorriz?

Danimarkako kostaldeko hiri txiki batean jaio nintzen. 8.000 edo 10.000 biztanle ginen eta hiri handi bat dago gertu. Laudio eta Bilbo bezala.

#### Nola bukatu zenuen Laudio?

Nire anaia eta lagun batzuk Portugalera joaten ari ziren 1984an. Bat-batean, furgoneta matxuratu zen autopistan eta Laudioko irteera ikusi zuten. Ibilgailuan ze goen neska batek ezagutzen zuten Danimarkako Gazte Komunistak erakundeko mutil batzuk eta horietako bat, antza, Laudio egon zen aurretik diskurtso bat ematen.

Tailer baten bila sartu ziren herrian eta Keska tabernan amaitu zuten. Oso jende gutxi mintatzen zen ingelesez eta Joxi horietako bat zen. Lagunak egin ziren eta bere etxean bizitzen gonbida-

tu zion, furgonetan konpondu bitartean. Anaiak neska bat ezagutu zuen eta hemen geratu zen, nahiz eta furgoneta konpondu. Anaia hemen egon zen bizitzen eta gero Donostian.

Danimarkara itzuli zenean, nirekin bizi zen eta uda batean erabaki genuen autoa hartu etaartzelona eta Laudioa joatea. Ni aurretik Laudio egon nintzen, 1987an, jaietan, astebetetz. Ezagutu nituen Joxi eta Alicia eta nire bikotea ere. Hiru urtez gure harremanean joaten eta itzultzen nintzen, harik eta 1999an Laudioa etorri nintzen bizitzen.

#### Oso ezberdina da bizitza?

Bai. Danimarkan maila ekonomikoa askoz handiagoa da, baina bizitza soziala ere askoz itxia da. Etxean egiten da bizitza eta hemen kalean. Ni lehen aldiz Laudio egon nintzen jaietan

izan zen, hori txundigarria izan zen (barreak). Bistakoa da diruagatik ez naizela hona etorri, baina nire herrian bi taberna zeuden eta hemen berrehun! (barreak)

#### Danimarka orain pil-pilean dago, Trumpen mehatxuen ondorioz, nola ikusten duzu egoera?

Kezkagarria da. Eskuin muturrak gora egiten du eta horrela heldu da Trump bezalako morroi bat presidentetzara. Egoera kezkagarria da eta Europa alde txiroena da, ez daukagu lehengairik. Dena daukate Estatu Batuek, Txinak edota Errusiak. Arkakuso bat azazkalen artean bezala gaude. Ez daukagu ezer eta muga-zerga gerra gertatze dago.

#### Groenlandiaren egoeraren inguruan zein da zure iritzia?

Groenlandia herrialde erraldoia da kilometro karratuen al-

detik, baina 50.000 biztanle baino ez du. Ez dago azpiegiturarik eta Danimarkak, kolonizatzaile orok egin duen moduan, txarto egin du. Groenlandiak independente izateko eskubidea dauka nahi duenean. Momentuz gehiengoak ez du horren alde egiten euren parlamentuan, baina hurrengo hauteskundeetan egin dezakete. Kasu horretan, Danimarkako parlamentuan berretsi beharko lukete erabakia, baina alderdi gehienek erabakia errespetatuko luketela adierazi dute.

Kontua da Danimarkak diru asko ematen diola Groenlandiarri, biztanle gutxi baitira ospitalea, polizia edo epaitegiak izateko. Herritar asko danimarkarrak dira eta, adibidez, Groenlandiako ikasleek Danimarkako unibertsitateetan ematen dute izena.

**Elkarrizketa osoa irakurgai Aiaraldea.eus atarian.**

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



araba álava  
foru aldundia diputación foral



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA